

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
50	11	110	10
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
273*	84	664	222
positibo guztira	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta

*Hernanin 7 (berriak 3), Astigarragan 3 (berriak ez)

«Erasmus ikasle bezala, sentsazioa da denbora galtzen ari garela, edo ez garela aprobetxatzen ari»

Iraila bukaeran joan zen Padovara, Italiara, Ander Berrondo hernaniarra, ikasturte osoa bertan pasatzeko asmoz. Ingeniaritza Informatikoa egiten ari da, Erasmus programaren barruan. Koronabirusaren hedapenak bete-bete harrapatu du Italiako aurreneko gune gorrietan.



Ander Berrondo hernaniarra, Italian, Padovako ikasleen erresidentzian. Bideoa ikusgai: 'www.kronika.eus'

HERNANI KORONABIRUSA

Koronabirusaren hedapenak bete-bete harrapatu zaitu Italian. Noiz hasi zineten aurreneko neurriak nabaritzen?

Hemen, Koronabirusaren aurkako neurriak hartzen hasi ziren otsaileko azken astean. Egin zutena izan zen, hasiera batean, unibertsitateak, diskotekak, liburutegiak... leku publiko gehienak itxi. Gero, gauzak gehitzen joan ziren. Gune gorriak ezarri zituzten Italia osoan zehar, eta Padova horietako bat izan zen. Orduan, geunden tokitik ez ateratzeko muga jarri ziguten. Gero, Italia osoa izendatu zuten gune gorria, eta beraz, ezin genuen mugitu Italian barrena ere, leku batetik bestera. Azken dekretua martxoaren 8koa izan da, eta ordutik ezin dugu etxetik atera, ez bada erosketak egin edo farmaziara joateko. Beraz, ordutik gaude etxetik atera gabe.

Eta nola moldatzen zara?

Ni erresidentzia batean bizi naiz, eta gela partekatzen dut lagun batekin. Nire lagun guztiak hemen ditut; gutxi-gor-

behera 15 bat izango gara. Gehienbat, pelikulak eta serieak ikusten pasatzen dugu eguna, eta ikasten ere bai. Unibertsitateak klaseak online ematen dizkigute, eta, beraz, klaseak jarraitu eta etxerako lanak egiten ditugu. Eta noizean behin,

«Gune gorriak ezarri zituzten Italia osoan zehar, eta Padova horietako bat izan zen. Orduan, geunden tokitik ez ateratzeko muga jarri ziguten»

erresidentzian daukagun patiora jaisten gara denak batera egotera. Baina, beti, distantzia minimo bat mantenduta, metro bat ingurukoa. Hala ere, ez gara askotan elkartzen.

Badakizue neurriak noiz arte egongo diren indarrean?

Azkeneko dekretua apirilaren 3ra arte aplikatuko dute, baina

aukera dago gero ere luzatzeko. Beraz, gauzak ez badu hobera egiten, pentsatzen dut luzatu egingo dela.

Beldurrik edo ezinegonik sentitzen duzue?

Beldurrik ez, gazteak baikara. Badirudi gaixotasunak ez digula gehiegi eragiten. Zaila da guk gaizki pasatzea honengatik. Beldurrik ez, baina beti sentitzen da halako ezinegona, gaixotuko zaren edo ez. Hobe, gaixotzen ez bagara, baina ez dugu hainbestearainoko beldurrik. Gehien molestatzen duena da, Erasmus ikasleak garela; etorri gara hona urtebetez Erasmusera, eta hau behin bakarrik egiten da. Sentsazioa da denbora galtzen ari garela, edo ez garela ari aprobetxatzen. Ez dago gure esku; argi dago. Baina izorratu egiten du Erasmus egitera etorrira, hemen egon behar izatea hilabetez edo gehiago, kalean edo bidaiatzen aritu beharrean.

Euskal Herrian orain gutxi murgildu gara egoera beretsuan... Gomendiorik baduzu?

Hemen bezala zaudete honezkerro, etxetik ezin aterata, eta dena itxita dagoela. Emango nukeen gomendioa da esaten diguten hori betetzeko: etxetik ez ateratzea, ez bada erosketak egiteko. Gero, eskuak ondo garbitzea eta higiena mantentzea. Eta, batez

«Nahiz eta guri ez eragin, gure gertuko norbaiti eragin diezaioke. Denon kontua da, eta garrantzitsua da neurriak betetzea»

ere, gazteei, gaixotasunak guri hainbeste eragiten ez digunez eta beldurrik ez dugunez, agian etxetik ateratzeko gogo gehien daukagunoi, esango nieke garrantzitsua dela esandakoa betetzea. Nahiz eta guri ez eragin, gure gertuko norbaiti eragin diezaioke. Denon kontua da, eta garrantzitsua da neurriak betetzea, gauza oso serioa baita. K

Laguntza sarea martxan, Goizuetan ere

Erosketak eginen dizkiete arrisku taldeetakoiei, edo haurrak etxean bakarrik uzterik ez dutenei: 681 265 187.

URUMEA KORONABIRUSA

Goizuetan ere martxan da herritarren laguntza sarea, egoera hauetan daudenei laguntzeko: adineko pertsonak, arrisku taldeetakoak, edota haurrak etxean bakarrik uzterik ez daukatena. Horiek, telefonoz deitu dezakete, 681 265 187 zenbakira; eta laguntza sareko norbait joanen da behar dituzten produktuak, elikagaiak edo botikak erostera.

Astigarragan, Bolondres Sarea sortu du Udalak, eta hauek dira laguntza eskatzeko bideak: 943 33 52 32 telefonoa, edo ongintza@astigarraga.eus eta alkatetza@astigarraga.eus emailak. Boluntario izateko, berriz, telefono horretara deitu. Eta Hernanin, Urumea Herriguneak jarri du martxan Zaintza Taldea. Laguntza behar duenak, telefonoz deitu dezake, 690 145 760 zenbakira; edo [whatsapp](https://www.whatsapp.com) bidez idatzi, 691 145 760 zenbakira. Eta lagundu nahi duenak, idatzi [whatsapp](https://www.whatsapp.com)etik: 663 473 045.

Astigarragan zein Hernanin, adinekoei erosketak egiteko eta haurrak zaintzeko eskainiko dute laguntza.

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte: kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behe 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIJO:

- / Kontrata: sei hilabetetarako.
- / Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

- / Urumea bailara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.
- / Publizista lanetan esperientzia.
- / Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

Catalana Occidente Aseguruak

BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

gse Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

Adarraga

ADARRAGA Konfitegia Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

